

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Basozain batzuek Gerra Zibileko lau pistola aurkitu dituzte Bidasoa ibaian

*Guardia Zibilari eman zizkioten atzo, eta dagozkion probak egingo dituzte*

Astelehena, 2017.eko abuztuak 7

Bidasoa-Leitzako Mugako Basozain batzuek lau pistola aurkitu dituzte Bidasoa ibaian, Doneztebe inguruan.

Armak badirudi Gerra Zibilekoak direla, eta Nafarroako Guardia Zibilaren eta Polizia Judizialaren Atzemandako Armetarako Biltegian entregatu dituzte. Horrela, dagozkion probak egingo dituzte haien jatorria eta historia ezagutzeko.

Armak latorrizko kutxa errektangular batean zeuden, lurrez beteriko zaku baten barruan, San Tiburtzioko presaren inguruan.

Basozain bat eremua aztertzen ari zela aurkitu zuen, urtero egiten den moduan presa hustuta zegoelako.

Normalean armada naziak erabiltzen zituen Alemaniako bi pistola dira:

9 mm-ko Luger parabellum bat, zurezko kirten-azalekin eta bi kargagailurekin, eta 9 mm-ko Colt labur bat, bakelitzako kirten-azalekin eta bi kargagailurekin; baita FB Random Vis bat, Polonian egindakoa, 9 mm-ko luzera duena, ezker aldean bakelitzako kirten-azalak dituena eta eskuinaldea pago-zurez

konponduta dagoena; Astra 400, 9 mm parabellum bat, kargagailuekin eta zurezko kirtenekin, Eibarren (Gipuzkoa) egindakoa.



Aurkitutako pistolen argazkia.



Pistolak sartuta zeuden zakua.

Eremu berean, 2015. urtean, basozain batzuek garai bereko metrailadore-kanoiak aurkitu zituzten ibai-ohetan, 20 metro ibaian gora.